

HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN JARRAIBIDEAK 2019-2020 IKASTURTEKO AZKEN HIRUHILEKORAKO ETA 2020-2021 IKASTURTEAREN HASIERARAKO (LABURPENA)

-ESKOLA EGUTEGIA

Irizpide orokor gisa, ikasturtearen iraupenari eutsiko zaio, eta horrek onartutako 2019- 20 ikasturteko egutegia errespetatzea dakar. Haatik, salbuespen batzuk aurreikusi dira eta horien artean dago Batxilergoko 2. urteko ikasleentzako egutegia uztailaren 3ra arte luzatzea, hau da, unibertsitatera sartzeko batxilergoko ebaluazioa egitea aurreikusten den egunetara arte (uztailaren 6a, 7a eta 8a).

-EBALUAZIOA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Aurreikusitako muga-egunak:

Amaierako ohiko ebaluazio: ekainaren 17tik 19ra

Amaierako ezohiko ebaluazioa: ekainaren 24tik 26ra

BATXILERGOA

Batxilergoko 1. eta 2. mailak ebaluatzeko aurreikusitako muga-egunak:

Ekainaren 1etik 16ra: aste ez-presentzialetako edukirako laguntza espezifikoa, egoera txarrena gertatuz gero (klase presentzialei ekainaren 1ean berrekitea).

Ohiko azterketak: ekainaren 17tik 19ra.

Ezohiko azterketak: ekainaren 24tik 26ra.

Batxilergoko 2. mailarako, EHUren aplikazioan batez besteko nota sartzeko muga-eguna: ekainaren 25a.

Ohiko Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa: uztailaren 6tik 8ra.

Ezohiko Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa: uztailaren 20tik 22ra.

Unibertsitaterako sarrera-probari dagokionez, ebaluazio-irizpideak eta probak berrikusi eta egokitzen ari dira une honetan, eta aste honetan bertan ikastetxeei bidaliko zaie informazioa